

Sonia Rueda, hitzaren eta irudiaren artean

Barakaldoko artistaren Mundakako erakusketan oso present dago jokoa, hitzen esanahi ezkutuen eta irudien gardentasunaren arteko jolas bizia

JON KORTAZAR



Sonia Ruedak sentsibiltatez eta joko kontzeptualez beteriko erakusketa sentikorra zabaldu du Mundakan, uda-giroa edertasunez blaituz.

Nostalgia eta eskuzabaltasuna

Iazko udako artikuluan arte erakusketa bat hartu nuen mintzagai, Jose Angel Lasak Bermeen aurkeztu zuena. Frantziskotarren klaustroa bete zuen bere lanaren biografia handia eta potentziaz jasoa eginez. Aurton Guggenheim Museoko Erakusketen zuzendaria den Dani Vegak (Nere Gojenolaren laguntzaz) hiru erakustea berezi, sentikor aurkeztu ditu Mundakako Kasinoan. Abigail Lazkozek eman

zion hasiera artisten erronda honi ekainean, uztailean Jorge Rubiok hartu zion tokia eta abuztuan hirugarrena zabaldu da Sonia Ruedaren eskutik.

Honelako ekimenek badute nostalgia kutsua azpian. Aspaldian desagertu ziren herrietan Aste Kulturalak, gure gizarteaz oso informazio gutxi zegoenean euskal kultura zabaltzeko egin ziren ahalegin erromantiko horiek. Gaurkoek, ordea, eskuzabaltasunarekin loturiko sustrai berezia erakusten dute. Uda luzea da, bateren batek Mundakagisako herrietan badu kulturarekin loturiko ogibide bat eta udan jakituria horren ogi papurtxoa jartzen du plazan herriarren mesedetan, kategoria oneko ekimen profesio-

nalak bultzatuz. Horrela nostalgia desagertu egin da eta ekimen duinek hartu dute haren tokia.

Sonia Ruedaren erakusketa hitzez eta irudiz

Artistak 2022an ‘Hitz politik’ deituriko liburua eman zuen argitara. Liburu horretan euskararen hitzekin jolas egiten du egileak, hitzen barnean diren esanahiak asmatuz eta amestuz, irudiaz lagunduz. Esango nuke Mundakako Kasinoan zabaldu duen erakusketak baduela sorkuntza joko horrekin lotura, iturburua baltz bezala hitzen eta irudien arteko munduak bultzatu du erakusketa. Liburuaren laburpena baltz bezala zabaldu da gure begien aurrean. Izenbu-

rutik hasita. ‘Burubero (Zutik)’ deitu du artistak eta hitzaren zentzu biak hartu: zoro gisa dabilena eta idealismoz ari dena.

Esango nuke erakusketa espazioaren ulermenetik hasi dela. Mundakako Kasinoan dantza-toki zabal hori ez da erraz betetzen, ez du erraztasunik eskaintzen. Eta Sonia Ruedak jakin du hiru espazio marrazten, hiru txoko aukeratzen eta txukuntzen. Hiru toki, hiru gai, hiru sentipen: iragan mindua, trantsizioa eta etorkizuna.

Gai bakoitza eratuz, txoko bakoitzak lau artelan ditu: artistaren metro biko auto-erretatu erraldoia eta hiru irudimen txiki (27 x 35) inpresio digitalez eginak. Gaiak, beraz, lau esparru hartu ditu: Norbe-

Artistak jakin du hiru espazio marrazten: iragan mindua, trantsizioa eta etorkizuna

raren irudia eta hiru sentsazio norberaren irudiaren osagai gisa. Hiru irudi horietan ageri da Sonia Ruedaren lirikotasunaren finezia. Iragan minduaren munduan bada lora bat (urre lilia), bada keinu bat (ebakiondoa), bada irudi bat (ezustea). Horrela jokatzeko du beste gai bietan ere. Iraganaren eta etorkizunaren arteko tarte irudikatuz, ipurtargia dago, kukuaren kantua eta bizitzako materia. Etorkizuna laguntzen dute margaritak, eskujokariak eta aireak. Guztia- ren buruan, jainkosa beltza baltz bezala, ‘Buruberoa’, denen erregina.

Erakusketa Hiru zenbakia- ren sinbologiaren inguruan osatuta dago, eta neurri horretan kontzeptuak toki handia du Sonia Ruedaren mundu ikuskeran. Baina horren azpian, hitzekin egindako jolas- sek eta irudien sotiltasunak lirikotasun bermea eman diote irudien munduen eraketari.

Kontzeptua sinboloen munduarekin ezkondukeri ageri da, eta era berean, bere lanean, oso present dago jokoa, hitzen esanahi ezkutuen eta irudien gardentasunaren arteko jolas bizia. Lirika eta bizitza mundu osoaren gainetik Sonia Ruedaren espresio munduan.

Aurreiritzi zuriak

JON MARTIN-ETXEBESTE

Anbizio handiko liburua da Maite Gurrutxagaren hau. Goi-mailako ilustratzaileak ditugu Euskal Herrian eta haietako askok idazlerik gabe ere distira egiten dute. Ia hitzik gabeko istorioa osatu du amezketarrak, liburu ezohikoa guztiz. Egitura aldetik, azala bera kontakizunaren lehen eszena da; istorioa ulertzeko beharrezko elementua: bere izara zuriaz harror sentitzen den sagu zaharra (purutasunarekiko zaletasun horrek konnotazio arraziala du). Normalean betegarri diren orri-babesetan 32 marazki daude, istorioa ulertzeko ezinbestekoak. Lehenengotan izara zuria gorensten da; hurrengotan, haurrak jolasean ageri dira; eta, segidan, izara zulatua. Agureak frogarik gabeko juzkua egingo du eta sagutxo haien gurasoei kargu hartuko die triskantzagatik. Gurasoek adeitsuki hartuko dute adinekoa eta etxean tea hartzera gonbidatuko dute izara preziatua josten duten

bitartean. Pixkanaka, auzokideak agertuko dira eta bakoitzak bere ekarpena egingo du (jatekoa, musika...). Auzokideak berariaz kulturantzak dira (arropatan zein keinuetan igerririko dira zenbait detaile) eta fenotipikoki ere islatu du aberastasun hori ilustratzaileak fintasun harri- garritz. Saguz beteko da gradualki eszena eta orrialdez orrialde garatzen doazen mugimenduz eta imajinatu beharreko elkarrizketaz. Iskanbilaren erdian, sagu protagonista loak hartuko du, goxo; eta esnatzean zartatuta zegoen izara zuria to- patuko du bera estaltzen; ez, ordea, lehen bezain zuri, adabaki koloretsuz beteta baizik. Izara bezala, saguaren aurreiritziak ere transforma- tu egongo dira eta bere etxe- ra itzuliko da, aberatsago.

TAPAKIA

Maite Gurrutxaga. Erein. 2025. 28 or, 17 euro



Album ilustratuak hurrentzat direla pentsatzen du jende gehienak, baina helduen bitartekaritza zenbate- raino den garrantzitsua era- kusten du liburu honek. Hel- du baten deskodetze kritiko- rik gabe nekez goza daitekeen istorioa da honakoa. Nor den bertako, eta nork nori zer zor- dion ezbaian dagoen garai ho- netan kulturartekotasunaz gogoeta egiteko deia da libu- ru hau.

Etsipenaren kontra

ARANTXA URRETABIZKAIA



Jakina da urtea urtarrilaren lehen egunean hasten dela, baina urteak badu beste hasiera bat, irai- lean, urtea bukaeratik gertu xamar da- goen puntuan. ‘La rentrée’ esaten zaio Frantzian itzulerari eta hortxe gaude, askori eskoletako ordutegia aspalditik arrotz bazaigu ere. Berriz ere lehen- goan.

Bada puntu horretatik begiratzen duzu inguru hurbil eta urrunera, biltzen duzu ahal duzun informazio- rik egiazkoena, saihesten dituzu nola hala hain zabalduak dauden gezurrak eta, edozein adin izanda ere, ikusten duzu iluntasuna nagusitzen dela bazter guz- tietan. Apenas antzematen den argi printza ahulen bat eta hori baikorrenon kasuan.

Ez ditut hemen guztion buruan dau-

den iluntasun horiek aipatuko, baina beste askok bezala galdera bat egiten diot neure buruari: zer egin, etsipenari eman aurretik? Nola fabrikatu itxaro- pena, nola bilakatu txinpartak gar?

Zalantzarik gabe, historiari esaten digu ez gaudela inoizko garairik ilune- nean, asko direla, edozein bazterretan, garai etsigarriagoak. Baina horrek kontsolamendu kaxkarra dakar etsi nahi ez duenarentzat. Gogoan ditut oporrik izan ez dutenak, nola ez, go- goan gorrotatzen duten lanera itzuli behar dutenak, eskola sufrikario duten ikasle eta irakasleak, hain ospe gaiztoa duten errutinara gustura itzultzen dire- nak.

Kontua da bi aukera nagusi ditugula inguratzen gaituen iluntasunaren au- rrean: lotara joan, alua mundua esa- nez, aldaketaren bat bultzatzeari uko eginez edo harrapatzen dugun txinpar- ta hauspotzea, itxaropena, kemena fa- brikatzea. Gutako bakoitza ahalegin daiteke bide batean ala bestean.

Hori bai, jakinda ezkortasunak ezkorkeria izena merezi duela eta atze- rakoia dela, hori sustatu nahi dutela gudan bazter guztietan. Total, hain txi- kia da egin dezakedana, hainbeste kos- tatzen da korronteari kontra igeri egi- tea... Errazago da flotatu eta korrontea- ri amore ematea.

SALDUENAK

FIKZIOA

- 1 **Maitasun kapitala** Karmele Jaio. Elkar
- 2 **Aitarene etxea** Karmele Jaio. Elkar
- 3 **Bi anai** Bernardo Atxaga. Erein
- 4 **Miñan** Amets Arzallus-Ibrahima Balde.Susa

EZ FIKZIOA

- 1 **Sendatzeko ametsak** Pello Añorga-Imanol Larrinaga. Balea zuria
- 2 **Han egon zen** Mikel Zubimendi. Txalaparta
- 3 **Euskararen mende magikoak** Juan Martin Elexpuru. Elkar
- 4 **Idazketa labana bat da** Annie Ernaux. Katakarak